



ARAUDIA

TXIRRINDULARITZA MB-XCO 2024

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu Barakaldon, 2024ko ekainaren 1ean. Hona hemen arautegia:

1. PARTE HARTZAILEAK

EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK infantilentzat antolatzen dira (2010 edo 2011 urtean jaiotako ikasleentzat). Gehienez kategoriako (neska eta mutiletan) 25 ikaslek parte hartuko dute lurralde historiko bakoitzeko.

2. IZEN EMATEA

EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOETAN parte hartzeko izen ematea, Foru Aldundi bakoitzaren bitartez egin behar da, maiatzak 27ko 15:00ak baino lehenago.

Lurraldeetako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaritzara igorritako zerrendetan azaltzen ez diren txirrindulariak parte hartzeko aukerarik ez dute izango.

Lurraldeetako ordezkariak izen emateak baieztatu beharko dituzte egun berean.

3. DORSALAK JASOTZEA

Dorsalak Barakaldoko Gorostiza Auzoan (Helmuga ondoko FEBIC Iren karpetan) jasoko dira.

4. JOKO ARAUAK

- Txirrindulariek erabiliko duten bizikletak Txirrindularitza Kirolaren Araudian ezarritakoaren arabera izan beharko du, disko-frenoak erabiltzeko aukera izanez.
- Parte-hartzaile guztiek ikastetxeek edota txirrindularitza eskolek emandako jantziak erabiliko dituzte.
- Kasko zurrinak erabiltzera derrigortuta daude lasterkariak.
- Bizkarreko zenbakia ikusi dadin zira gardenak erabili behar dituzte lasterkariak.
- Berotzeko arropa erabiliz gero, bizkarreko zenbakia begi-bistan eraman.

Bere burua defendatzera beharturik dago lasterkari bakoitza; kirol-lehiaketa guztiei dagokien joko garbiaren aurka doan lasterkarien arteko edozein laguntza edo akordio debekaturik dago.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emandako bizkarreko zenbakiak eramango dituzte lasterkariak. Bizkarreko zenbaki horiek ezin dira ez ebaki, ez txikiagotu, eta lasterkariak bizkarraren ezkerrean jarrita eramango dituzte, mokorraren parean.

5. ZIRKUITU LABURREKO PROBA (XCO)



Oro har, parte-hartzaileek jokatu beharreko lehiaketan iraupena 30 eta 45 minutu bitartekoa izango da.

Probak zirkuitu itxi batean egingo dira. Zirkuituaren sokak gutxienez 3 km-ko luzera eta gehienez 8 km-ko luzera izan beharko du, eta esfortzu fisikoaren aurrean trebetasun teknikoak lehenetsiko dituen trazadura izango du.

Sailkapena parte-hartzaile bakoitzaren Helmuga-lerrotik igarotzeko hurrenkeraren arabera ezarriko da.

Irabazleak Helmuga-lerroa zeharkatu ondoren, proba amaitutzat emango da parte hartzen duten guztientzat ere lerroa zeharkatzen dutenean.

Lasterketa irekitzen duen ibilgailuak doblatzen duen txirrindulariak proba utzi beharko du.

Erretiratzen diren txirrindulariek Epaimahai Teknikoari eman beharko dizkiote dortsalak.

5.1. Irteerako parrilla

Irteera-parrillak hiru kaleren multiploa izango du guztira. Kale bakoitzak 75 cm-ko zabalera izan beharko du.

Epaimahai Teknikoak zozketa bidez banatuko ditu kaleak lurralde-federazioen artean. Lurralde-federazio bakoitzari kale-kopuru bera egokituko zaio.

Lurralde Federazio bakoitzak bere txirrindularien ordena zehaztuko du esleitutako kale bakoitzeko ilaran, eta Epaimahai Teknikoari jakinaraziko dio.

Lurralde Federazio bakoitzeko txirrindulariak batetik batera deituko ditu Epaimahai Teknikoak, bakoitzaren ordenaren eta posizioaren arabera.

5.2. Laguntza teknikoko lanpostuak

Laguntza teknikoak horretarako gaitutako guneetan bakarrik eman beharko dira, eta akreditatutako laguntzaileek soilik. Berariaz debekatuta dago txirrindularien arteko material edo laguntza trukaketa oro.

Lurralde-federazio bakoitzari bost akreditazio esleituko zaizkio. Akreditazioak lurralde-federazio bakoitzeko Ordezkaritari emango zaizkio, komeni den moduan bana ditzan.

6. EZBEHARREN AURREAN

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak parte-hartzaileen osotasuna bermatzen duten baldintzak betetzen ez direla uste badu, federazioak proba etetea erabakitzeke ahalmena izango du.

Istripuren bat edo ustekaberen bat gertatuz gero, berehala jakinarazi beharko zaio zirkuituan dagoen erakundeak izendatutako arduradunari. Pertsona horrek zuzenduko ditu egin beharreko urratsak.

7. AZKEN OHARRA

Araudi horren barruan aurreikusirik ez dauden egoerentarako honako hauek izango dira kontutan:



- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena;
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena;
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa;
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2024ko urtarrilaren 25eko AGINDUA, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena;
- f) Txirringularitzako Euskadiko Federazioaren Mendi-bizikletako Araudiak dioena;
- g) Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.